## 4.1. DIRULAGUNTZA LERROA: ALFABETATZE-EUSKALDUNTZE IKASTARO HOMOLOGATUETAN PARTE HARTZEA – 2021. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

### 1- Dirulaguntzaren xedea

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, ikasturte honetan eginiko euskalduntze eta alfabetatze ikastaro homologatuetarako. Lehiarik gabeko edo elkarren segidako konkurrentziaren bidez (eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak aintzat hartuz, aurrekontu-partida agortu arte) esleituko dira.

### 2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua

Euskara ikasteagatik emango diren dirulaguntzen zenbatekoa 2021eko aurrekontuko partidaren kontura izango da; betiere, partida horretako zenbateko osoa asetzeko partida nahikoa esleitzen bada. Partida hori ondorengoa da:

1030.480.01.335.10 Dirulaguntzak: euskara ikasleen bekak; 50.000 €. Egoki den kreditu aldaketaren bitartez kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, emakida ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean baitago. Kreditu hori deialdi hau onartu eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian izango da.

2021eko aurrekontuan onartutako kreditua txikiagoa bada, ebazpen-proposamenak behera egin beharko du dauden kredituetara egokitze aldera.

## LÍNEA DE SUBVENCIÓN 4.1: ASISTENCIA A CURSOS HOMOLOGADOS DE ALFABETIZACIÓN-EUSKALDUNIZACIÓN – 2021. BASES ESPECÍFICAS.

### 1- Objeto de la subvención

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones por asistencia a cursos homologados de alfabetización y euskaldunización durante el curso académico actual. Se concederán mediante concurrencia no competitiva o sucesiva (estimando todas las solicitudes que cumplan los requisitos exigidos, hasta el agotamiento de la partida presupuestaria).

### 2- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones

El importe de las subvenciones para el aprendizaje de euskera será con cargo a la siguiente partida del presupuesto del año 2021, de forma que el importe global de las mismas queda condicionado a que se consigne partida presupuestaria suficiente:

1030.480.01.335.10 Subvenciones: becas estudiantes euskera; 50.000 €. Si posteriormente fuesen ampliadas en base a la correspondiente modificación presupuestaria, podrá autorizarse nuevo gasto imputable a la presente convocatoria.

Esta cuantía total máxima tiene carácter estimado, puesto que está condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de resolución de la concesión, que tendrá lugar en el ejercicio presupuestario siguiente al de la aprobación de esta convocatoria.

En caso de que el crédito aprobado en el presupuesto de 2021 fuera inferior, deberá ajustarse a la baja la propuesta de resolución a los créditos existentes.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako matrikularen kostua gainditu, ez bakarrean, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la matrícula subvencionada.

**3.- Pertsona onuradunak eta dirulaguntza eskatzeko baldintzak.**

Oro har, dirulaguntzetarako aukera izan dezakete Errenterian erroldatuta daudenek eta bere lanbidea edo lanpostuarengatik hiritarrarekin harreman zuzena duten merkataritzako edo enpresako langileak, betiere komertzioak edo enpresak egoitza Errenterian duenean eta onuradunak ez duenean erroldatutako herrian dirulaguntzarik jasoko.

Dirulaguntza lerro honetarako aukera izateko, ikastaroaren amaieran, gutxienez, asistentziaren %85 egiaztatu beharko da. Horretarako ikaslearen hasiera data hartuko da kontuan. Ikastaroa autoikaskuntzakoa bada, berriz, asistentziaren %100 egiaztatu beharko da. Asistentzia faltak zuritzeko legeak baimendutako kasuen egiaztagiriak baino ez dira onartuko.

**3.- Personas beneficiarias y requisitos para solicitar la subvención.**

Con carácter general podrán optar a las subvenciones los empadronados/as en Errenteria, y el personal trabajador de comercios o empresas que tengan por razón de su profesión o puesto de trabajo relación directa con la ciudadanía, cuando el comercio o la empresa tengan su sede en Errenteria, siempre que el beneficiario/a no obtenga subvención en el pueblo en el que está empadronado/a.

Para poder ser beneficiario/a de esta línea de subvención, se deberá acreditar al final del curso, como mínimo, el 85% de la asistencia. Para ello se tendrá en cuenta la fecha de inicio de la persona interesada. Si el curso es de autoaprendizaje, se derá acreditar el 100% de la asistencia. Para justificar la inasistencia, sólo se aceptarán los certificados de los casos autorizados legalmente.

**4.- Eskabideak aurkezteko epea**

2020-2021 ikasturtean euskarako ikastaro homologatuetan parte hartzeagatik dirulaguntza eskatzeko epea 2021eko ekainaren 24tik uztailaren 9ra bitarte izango da, biak barne, eta 2021eko irailaren 1etik urriaren 15era bitarte, biak barne.

**4.- Plazo de presentación de solicitudes**

El plazo de presentación de solicitudes para la subvención por asistencia a cursos homologados de euskera durante el curso 2020-2021 será del 24 de junio al 9 de julio de 2021, ambos inclusive, y del 1 de septiembre al 15 de octubre, ambos inclusive.

**5.- Eskabideak baloratzeko irizpideak.**

Eskari guztietan ondoko irizpide objektiboak ezarriko dira:

Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroetara joateari dagokienean, gehienez honako dirulaguntzak

**5.- Criterios de valoración de las solicitudes.**

En todas las solicitudes se aplicarán los siguientes criterios objetivos:

Para la asistencia a los cursos de alfabetización y euskaldunización se establecen las siguientes



IFK/CIF P-2007200-E • Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449613 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

emango dira:

- Matrikularen %80 diruz lagunduko da %85eko asistentzia eta aprobetxamendua justifikatzen baditu (ikastaroa autoikaskuntzakoa bada, asistentziaren %100 exijituko da).

- Matrikularen %100 diruz lagunduko da %85eko asistentzia eta aprobetxamendua justifikatzen baditu (ikastaroa autoikaskuntzakoa bada, asistentziaren %100 exijituko da) ziurtatzen dutenek ikastaroa hasi zutenean, honako egoeraren batean zeudela:

  - langabezian
  - diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen
  - Gizarte Larrialdiko Laguntza jasotzen
  - lanbide arteko gutxiengo soldata ez zutela jasotzen

- Barnetegien kasuan, formazio gastuak soilik diruz lagunduko dira. Beraz, ostatu, mantenu eta garraio gastuak ikasleak ordaindu beharko ditu.

subvenciones máximas:

- Se subvencionará el 80% del coste de la matrícula siempre que se justifique el 85% de asistencia y el aprovechamiento del curso (si el curso es de autoaprendizaje, se exigirá una asistencia del 100).

- Se subvencionará el 100% del coste de la matrícula siempre que se justifique el 85% de asistencia y el aprovechamiento al curso a aquéllas personas que acrediten que, a la fecha de incorporación al curso se encontraban en alguna de las siguientes situaciones:

  - se encontraban en situación de desempleo
  - percibían la Renta de Garantía de Ingresos
  - percibían Ayudas de Emergencia Social
  - no percibían el salario mínimo interprofesional

- En el caso de asistencia a barnetegis, la ayuda se concederá solamente para sufragar los gastos de formación, por lo que los gastos de alojamiento, manutención y traslados correrán a cargo del alumnado.

**6. Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

Eskatzaileek Udalak emandako inprimaki normalizatua (Eranskin honetan agertzen dena) aurkeztu beharko dute, ondorengo dokumentuekin batera:

a. NAN

b. Eskaeran adierazitako kontu korrontearen titularra egiaztatzeko agiria.

c. Euskaltegiko ziurtagiria. Ikasturtean izandako

**6. Documentación a presentar con la solicitud:**

Los y las solicitantes deberán presentar el impreso de solicitud normalizado facilitado por el Ayuntamiento, y que se adjunta al presente Anexo, junto con los siguientes:

a. DNI

b. Documento que acredite la titularidad de la cuenta corriente especificada en la solicitud.

c. Certificado del Euskaltegi en el que se recoja la



IFK/CIF P-2007200-E • Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449613 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

asistentzia eta gainditutako urratsak adieraziko dira bertan *(Udal euskaltegiko ikasleek ez dute aurkeztu behar, datu horiek dagoeneko udalaren esku daudelako).*

d. Matrikularen ordainagiriak *(Udal euskaltegiko ikasleek ez dute aurkeztu behar, datu horiek dagoeneko udalaren esku daudelako).*

e. Merkataritzako langilea bada, lanean gutxienez sei hilabetez aritu izana ziurtatzen duen agiria, egoera hau egiaztatzen duen dokumentazioa.

f. Langabetuak, ikastaroa hasi zuten egunean langabezian zeudela adierazten duen Gizarte Segurantzako bizitza-laboralaren txostena.

g. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenek, ikastaroa hasi zuten egunean egoera horretan zeudela ziurtatzen duen Lanbideko ziurtagiria.

h. Gizarte larrialdiko laguntza jasotzen dutenek, eskera inprimakian Gizarte Zerbitzuetan kontsulta egiteko baimena emateko laukitxoa markatu beharko dute.

i. Lanbide arte gutxiengo soldata jasotzen ez dutenek, errenta aitorpena edo errenta aitorpena egitetik salbuetsia dagoela adierazten duen Ogasunaren ziurtagiria.

j. Eskatzaileak ez badio Udalari Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunean edo/eta Gizarte Segurantzan informazioa kontsultatzeko baimena ematen, ebazpena eman aurretik dagokion ziurtagiria ekarri beharko du (Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dituen zerga betebeharretan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria / Gizarte Segurantzan betebeharrak egunean dituela adierazten duen ziurtagiria / DLL jasotzen duenaren ziurtagiria)

asistencia al curso y los niveles aprobados *(el alumnado del Euskaltegi Municipal no tiene que presentarlo, pues el ayuntamiento ya dispone de estos datos).*

d. Recibos de matrícula *(el alumnado del Euskaltegi Municipal no tiene que presentarlo, pues el ayuntamiento ya dispone de estos datos).*

e. Si es trabajador o trabajadora de comercio, certificado que acredite seis meses de trabajo como mínimo y descripción de las funciones que desempeña.

f. Quienes se encuentren en situación de desempleo, informe de vida laboral de la Seguridad Social que acredite la situación de desempleo en la fecha de incorporación al curso.

g. Quienes reciban la Renta de Garantía de Ingresos, certificado emitido por Lanbide acreditando esta situación en la fecha de incorporación al curso.

h. Quienes reciban la Ayuda de Emergencia Social, deberán marcar en el impreso de solicitud de subvención la casilla para conceder permiso para realizar la consulta en Servicios Sociales.

i. Quienes no perciban el salario mínimo interprofesional, declaración de la renta o certificado de Hacienda que acredite estar exento de realizar la declaración fiscal.

j. En el caso de que en el impreso de solicitud la persona solicitante no autorice al Ayuntamiento la consulta de información al departamento de Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa y/o en la Seguridad Social, deberá adjuntar, con carácter previo a adoptarse la resolución, el certificado acreditativo correspondiente (Certificado que acredite estar al corriente de sus obligaciones tributarias con la Diputacion Foral de Gipuzkoa / Certificado que acredite que se halla al corriente en

sus obligaciones con la Seguridad Social / Certificado que acredite la percepción de AES)

**6.- Dirulaguntza ordaintzea**

Dirulaguntzaren ordainketa Udal Hizkuntza Politikako zinegotzi delegatuak dirulaguntzak banatzeko behin betiko ebazpena hartu ondoren egingo da. Ordainketa, dirulaguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela egiaztatuta ondoren egingo da aldi bakar batean, eskaeran adierazitako kontuan egingo den dirusarrera bidez.

**6.- Abono de la subvención**

El abono de la subvención se realizará una vez aprobado el acuerdo definitivo de reparto de subvención por la concejala delegada de Política Lingüística Municipal, previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió. El abono se realizará en un único pago, mediante ingreso realizado en la cuenta indicada en la solicitud.

**Ohar garrantzitsua**: deialdi hau egin da ERRENTERIAKO UDALAK 2021 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

**Nota importante**: esta convocatoria deviene de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2021. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.



IFK/CIF P-2007200-E • Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449613 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus